




ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Latse.

Auzoa, udalerria: Ereñotzu., Hernani.

Dolarearen kokapena: Latse ebetik 100 bat metrora, Hernanitik Goizuetara doan errepidearen beste aldean, tolare izateko egindako eraikin batean.

Jabea: Joxeantonio Etxeberria.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Urtero egiten dute sagardoa, etxerako.

Zenbait datu: Tolareaz gain eraikinaren bazter batean sutegia ere badago, aita errementaria baitzen.

Eguno erabilera: Sagardogintza.

Kontserbazio egoera: Tolareko makineri guztia egoera onean dago, baina eraikinak teilatu berria eta paretak txukuntzea behar ditu.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Porlanezko askaren erdian zutik hartutako ardatza du, eta bertan muntatua burdinazko palanka bidez eskuz eraginda gora eta behera mugitzen den burua, karraka eta zurezko urkaz osatua.

Dolarearen osagarriak:

- Altzairu herdoilgaitzezko matxaka motorduna.
- Altzairu herdoilgaitzezko bi upel.
- Txorrotak, giltzak eta patsolak.
- Pats-zuloa.

Argazkiak: 25.01, 25.02, 25.03.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, matxaka, Hernani, sagardoa egin, upela.

OHARRAK

- Matxaka berria erabiltzen hasi baino lehen, porlanezko bi inertzia-bolante handi zituen bat erabiltzen zuten, eskuz. Inertzia bolanteak han inguruan ikus daitezke.
- Urumea ibaiaren beste aldean dituzte sagastiak, eta hara beraiek egindako bi lagunentzako txanela txiki batean joaten dira.
- Pats-zuloan sartzen dute patsa, gatz pixka bat bota eta zanpatuta, ondoren behiei emateko.

GALDETEGIA

Informatzailea: Joxeantonio Etxeberria.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 23a